



## Albisterik...

[IRAKURRIENAK](#)
[Bozkatuenak](#)
[Bidalienak](#)

- 1 [Bihar izango da Xabier Leteren aldeko hileta elizkizuna, Urnietan](#)
- 2 [Reala nagusitu da derbian](#)
- 3 [Gaur 20 urte sortu zen 'Egunkaria'](#)
- 4 [Cibeles eta Louvre, independentziaren kolorez](#)
- 5 [Hasi da mugitzen Kataluniako independentismoa](#)



# Mendiguren, garapena ala basakeria?

aitor fernandez de ortega  
 lurra taldearen bultzatzailea  
 A

steburuan, irailaren 17an eta 18an, Lurraren III. Eguna egingo dugu Mendigurenen, Araban; Mendiko Hotsak izena jarri diogu, eta, jai eta aldarrikapen kutsua izanik, gure herri izatearen bi alderdi funtsezko bilduko ditu: gure natur inguru oinazetua eta gure kultura inoreztatua.

Lurrari mintzatzen utziko diogu, txalapartaren bitartez, eta, hala, ezinegona azaldu ahal izango digu, gure herri txiki honetan ematen ari gatzazkion tratua dela eta. Ekitaldia mendian izango da, Mendiguren herrixkan, Gasteiztik gertu; izan ere, herri horrek ongi erakusten du Euskal Herri guztian zer gertatzen ari den. Hain zuzen ere, Mendigurenen setiatuak gaude, itotzen gaituen aurrerabide usteko batek setiatuak: autobideak erdi bi egin zuen herria, eta azken urteotan bost herritar betiko joan zaizkigu bertan; aireportuak, hegazkinen joan-etorriarekin, herriko etxeren bat pitzatu du; ibaia hil egin zen, enpresa batzuk sortu bezain laster; mendia bahiturik daukate militarrek; merkataritza gune eraiki berriak, bere izen gaizki plagiatuarekin, irain egiten dio gure probintziako mendirik enblematikoenari, Gorbeia; Eibar eta Gasteiz artean egingo duten autobideak aizkorakada hilgarria emango dio gure natur inguruari; eta kalteen zerrenda oraingoz bukatzeko, gogoan izan laster izango dugula parajeotan Abiadura Handiko Trena...Izugarrikerien zerrenda horretan, Eibar-Gasteiz autobideak galarazten digu orain loa: hormigoia eta asfaltozko anakonda horrek egunean baino egunean paraje gehiago irensten ditu, eta parean harrapatzen duen guztia zapaldu, milaka tonaren azpian. Guri dagokigunez, super autobide horrek izatekotan, gasolina bezalako superra coitus interruptus halako bat dakar: iparraldera, egiako Gorbeia begiratu, eta ez gara gozatuko oraingo paisaia ederraz; izan ere, autobide gaizki sortu hori gure inguruan sartzen den egunean, ezin gozatuko gara paisaiaz, biztanleen kontrako jarrerari ez diotelako kasurik egin. Guk, super autobideak eskatu beharrean, natur pasabideak eskatzen ditugu: lurra, eta ez hormigoia. Gasteizen, ondo saldu dute, politikan, «eraztun berdea» esaten diotena: parke txiki sortu berri batzuen eta gutxi-asko naturalak diren gune batzuen sarea. Baina eraztun horrek medailaren tankera du, politikariek lepoan zintzilik jartzen baitute; eraztuna baino gehiago, bitxi faltsua da, baliorik gabea. Eraztun berdeak ezkon eraztuna izan behako luke, Arabako hiriburua eta inguruko mendialdea betiko uztartzeko. Izan ere, orain ere badago pasabide bat, natur korridore bat: mota guztietako animaliak aski erraz iristen dira Gorbeiatik ia Gasteizeraino, eta Arakako militarrekin ezuste ezatseginean topo egiten dutelako ez dira heltzen hiriraino. Hala, itxiturako natura pusketa batez gozatzeko Zabalganaraino joaten direnek ez dakite han ikusten ari diren oreinen lehengusuak libre dabiltzala, bere familiako presoengandik oso gertu.Hori guztia kontuan harturik, asteburua baliatu nahi dugu Mendigurenen, jai giroan Eibar-Gasteiz autobideko lanak berehalaxe gelditzea eskatzeko eta Gasteiztik Gorbeiarainoko natur pasabidea zaintzea exijitzeko Arakako mendietatik pasatzen da, eta autobideko lanek burua moztuko diote.Egoeraren jakitun, eta gure natur ingurua eta kultura batzeko asmo zintzoarekin, Txalapartaren Egunak bat egingo du Mendiko Hotsak lurraren egunarekin Mendigurenen; horregatik, kulturaren eta lurraren alde daudenak gonbidatu nahi ditugu herri txiki horretara etorri eta behin eta berriz esan diezaieten ezetz eta ezetz megaproiektu hotsandiko horiei. Teknokrater sortzen dituzte, eta politikariek babestu, batere gogoratu gabe hiltzera kondenatzen dutela gure herria, eta beste herri asko.Larunbatean, Euskal Herri guztiko txalapartariak izango dira, Arabako Txalamako taldeak koordinaturik, eta, herri afaria egin ondoren, zenbait talderen kontzertua izango da. Igandean, goizean goiz hasita, izango da zer egina: ibilaldia herritik mendiraino, militarrek harturiko lurretaraino; herri kirolak; herri bazkaria, Arabako Bertso Eskolarekin; eta musika taldeak.Festa eta aldarrikapena batu nahi ditugu, gure kulturaz gozatu eta gure lurra babestu. Ez Mendigurenen, ez Araban eta

ez Euskal Herri guztian, eredia ez dadila basakeria izan.  
Erredakzioan itzulia

[Hasiera](#) | [Euskal Herria](#) | [Ekonomia](#) | [Mundua](#) | [Kirola](#) | [Kultura](#) | [BerriaTB](#) | [Parte Hartu](#) | [Blogak](#) | [Bereziak](#) | [Paperekoa](#) |  

© **Berria.info - Euskal Editorea S.L.**  
Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140  
Telefonoa: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172  
berria@berria.info - <http://www.berria.info/>  
Lege Informazioa



Laguntzaileak:

